

# Aguraingo udal-bihitegia Antzinako Erregimenaren krisian, 1765-1840

**Xabier Lamikiz**  
Historian doktorea eta UPV/EHUko irakaslea

Industriaurreko nekazaritza produktibitate txikikoa zen eta aleen merkatua integrazio-maila eskasekoa. Horregatik urrialdiak nahiko gertaera arruntak ziren. Udal-bihitegiak urrialdior aurre egiteko eta ekoizpena sustatzeko sortu ziren Monarkia Hispanikoan zehar, eta bide batez bake soziala bermatzeko ere. Haien lana bereziki garrantzitsua izan zen 1765 ondoren: lehenik 1765ean ezarritako aleen merkataritza-askatasunak penintsulan zehar hornikuntza-arazoak sortu zituelako; eta, bigarrenik, XVIII. mende bukaerako ekoizpen-geldialdiak eta gerrek egoera ekonomikoa eta soziala nabarmen okertu zutelako, konbentzioz Antzinako Erregimenaren krisia deitzen duguna piztuz. Artikulu honetan Aguraingo udal-bihitegiak krisi horren garaian izan zuen eraginkortasuna aztertzen dugu. Besteak beste, nekazariei mailegatutako garia bertako gari-ekoizpen osoarekin alderatzen dugu.

GAKO-HITZAK: Aleen merkataritza · Industriaurreko nekazaritza · Janari-urritasuna · Udal-bihitegi.

## Agurain's municipal granary during the crisis of the Ancien Régime, 1765-1840

The productivity of pre-industrial agriculture was low, and so was the level of integration of grain markets. As a result, food crises were a common occurrence. Throughout the Hispanic Monarchy municipal public granaries were created to fight food shortages, assist producers, and maintain social peace. Their presence became particularly important after 1765: first because the 1765 grain trade liberalisation caused repeated food supply problems, and secondly because production became stagnant and numerous wars broke out in the final decades of the eighteenth century. The resulting economic and social turmoil lasted for decades and is conventionally known as the crisis of the Ancien Régime. In this article we analyse the effectiveness of Agurain's municipal granary during that crisis. We also compare the quantity of wheat lent to farmers for sowing with local wheat production

KEY WORDS: Grain trade · Pre-industrial agriculture · Food crises · Public granary.

*Jasotze data:* 2016-01-22    *Onartze data:* 2016-03-17

## 1. Sarrera: hornikuntza-krisien arrisku iraunkorra eta 1765eko legea

Industriaurreko ekonomiaren ezaugarri nabarmen bat zen sarritan urrialdiak edo hornikuntza-krisiak pairatzen zituela. Agian janari-urritasunaren ondorioak ez ziren gerrek edo izurriteek sortutako triskantzak bezain ikusgarriak, baina bake zein hazkunde ekonomiko garaietan nozitu zitezkeen. Europa hegoaldean batik bat gariaren, eta beraz oinarrizko elikagaia zen ogiaren, faltarekin zeuden lotuta (Persson, 1999). Produktibitate txikia, eguraldiaren gorabeherak, garraioen geldotasuna, merkatuen integrazio-maila eskasa, esku gutxitan kontzentratutako lur-jabetza, gariaren urteko uzta bakarra eta espekulazioa ziren, bakoitza bere neurrian baina gehienetan guztiak konbinatuta, urritasunen eragile nagusiak. Industriaurreko sektore ekonomiko garrantzitsuena nekazaritza izanik ere, populazioarentzat elikagai nahikoa ekoiztea ez zen batere erraza suertatzen, eta arazo horrek, nola ez, oihartzun ekonomiko, sozial eta politikoa sakonak izaten zituen, batez ere hiriguneetan.

Artikulu honetan Antzinako Erregimenaren krisian urrialdioi eman zitzaien erantzuna dugu aztergai, eta helburu hori gauzatzeko Arabako Lautadako ekialdean kokatua dagoen Salvatierra edo Agurain hiribilduaren esperientzian jarriko dugu arreta. Hain zuzen ere, toki askotan nekazaritza-produkzioa sustatzeko eta urrialdiei aurre egiteko beren-beregi sortutako erakunde ekonomiko bat ikertuko dugu, alegia udal-bihitegia. Kontuan izan behar da Arabako Lautada garia ekoizteko eskualde aproposa dela, «un oasis excedentario en granos», Fernández de Pinedo eta Bilbaoren (1984: 100) hitzetan. Zer eragin izan zuen Aguraingo udal-bihitegiak aguraindarren eguneroko bizitzan? Erakunde eraginkorra izan ote zen urrialdiei aurre egiteko? Eta produkzioa sustatzeko? Galderok erantzuten hasteko beharrezkoa da, lehenik, Aro Berriko aleen merkataritzaren ezaugarri nagusiak ezagutzeko.

XVIII. mendearen bigarren erdialdera arte, Monarkia Hispanikoan (beste Europako toki askotan bezalaxe) agintarien esku-hartzea ezinbestekoa zela pentsatzen zen herritarren hornikuntza bermatzeko. Kontsumitzaileak babesteko asmoz, agintariak aleen merkataritza-askatasuna debekatu eta, beharrezkoa izanez gero, aleak biltegiatuta zituzten norbanako eta elkarteak euren aleak bidezko prezioan saltzera behartzen zituzten. Gainera, urrialdirik egon ez arren ere, prebentzio moduan, ale-tasa (hots, gehieneko salmenta-prezioa) ezartzea praktika oso hedatua izan zen. Izan ere, Gaztelan gari-tasa iraunkor bihurtu zen 1558an eta, aldaketa ugari jasan ondoren, azkenik, 1699ko abuztuan, anegako tasa 28 errealetan finkatu zuen koroak (Andrés eta Lanza, 2013: 75-78; Castro, 1987: 69-86)<sup>1</sup>.

Baina 1760ko hamarkadan gauzak zeharo aldatu ziren, 1765eko uztailaren 11n koroak *Libre comercio de los granos con derogación de su tasa* izenburua zeraman pragmatika kaleratu zuenean<sup>2</sup>. Horri tenore bereko lege osagarri batek jarraitu zion hiru hilabete berandago<sup>3</sup>. Agintari eta pentsalari ilustratuen ustez merkataritza-

---

1. Gaztelar anega (*fanega castellana*) batek 55,5 litro zituen. Araban anega mota hori erabiltzen zen.

2. *Novísima Recopilación de las leyes de España* (Madril, 1808), VII. liburua, XIX. titulua, XI. legea, 174. Bi urte lehenago, 1763an, Frantzia ere merkataritza-askatasun garai bati eman zitzaien hasiera, zeinetan «grain would be freed from the controls which had inhibited its movement, spied on its whereabouts, and governed the conditions of its exchange» (Kaplan, 1976: 90-91).

3. *Novísima Recopilación*, VII. liburua, XIX. titulua, XII. legea, 175.

askatasunaren debekua eta tasaren ezarpena ziren herriaren hornikuntza egokia galarazten zuten bi oztopo nagusiak (Astigarraga, 2003: 90-95). Uzta txarrak ezezik, ilustratuentzat ordura arteko sistema bera zen urrialdien sortzailea, haren zurruntasuna eta mugak eta, batez ere, merkatuarengan zeukan konfiantza eza. Hura aldatu beharra zegoen, eta aldaketak merkataritza librearen eskutik etorri behar zuten.

Baina pragmatikek espekulatzailen lana erraztu zuten, eta, beraz, ez zioten populazioaren gehiengoari onurarik ekarri, kontrakoa baizik<sup>4</sup>. Hurrengo urtean, 1766ko udaberrian, aurreko urteetako uzta txarrek sortu eta merkataritza-askatasunak sakondutako hornikuntza-krisi galanta pairatu zuten Gaztela osoan. Madrilen, adibidez, Esquilacheren aurkako matxinada piztu zen martxoan. Euskal Herriaren kasuan, Gipuzkoan batik bat, 1766ko apirilean matxinada piztu zen (Fernández de Pinedo, 1999: 403-419; Iñurrategui, 1996). Hala eta guztiz ere, gobernuak bere horretan jarraitu eta merkataritza-askatasuna mantendu zuen, legez behintzat. Izan ere, 1790eko uztailaren 16ko pragmatikak aurreko neurri liberalizatzaileak berretsi zituen. Baina praktikan askatasuna mantentzea oso zaila suertatu zen: 1780an, 1789an, 1794an, 1798an eta 1803-1804 biurtekoan, agintariak, hornikuntza-krisi sakonek behartuta, aleen merkataritza-askatasuna mugatu behar izan zuten urrialdiek irauten bitartean.

1765eko lehen pragmatika liberalizatzaileak argi esaten zuen neurriak ez zuela eraginik izango penintsula iparraldeko kostaldetik gertuko lurraldeetan, «hasta diez leguas de la mar» (hots, 55,72 kilometro), alderdi haietako biztanleek, teoriarik behintzat, itsasoz hornitzeko aukera zutelako. Hortaz, Bizkaian eta Gipuzkoan neurriak ez zuten ezarpenik izan; bai ordea, dirudienek, Araban. Zer harrera izan zuten 1765eko pragmatikek? Azaroaren 23an Arabako Biltzar Nagusia batu zirenen ustez liberalizazioak kaltea besterik ez zuten ekarriko eta, hori saihesteko asmoz, ahaldun nagusiari erregeri idazteko enkargua egin zioten, hark Araban neurriak indarrrik gabe utz zitzaizkion eskatzeko. Ahaldun nagusiak erregeri gogorarazi zion 1332an lortutako pribilegioei esker (hots, foruak) Araban ez zutela inoiz ale-tasarik izan, eta tasa ezartzeko aginduren bat iritsi zitzaizen bakoitzean «no tubo efecto y se mandó suspender, declarando que de ningún modo se entendiese en el territorio y comprensión de la solicitante dicha tasa, aviendo representado su esterilidad y cortedad de frutos»<sup>5</sup>. Lurraren antzutasuna ez zen, noski, Arabako Lautadaren kasua, baina foruak kosta ahala kosta defendatu beharra zegoen. Arabako agintariak kezkatzen zituena merkataritza- eta biltegiatze-askatasuna zen. Ahaldun nagusiaren esanetan, ale-tasaren ezarpena aholkatzen ez zuten zio berberik merkataritza-askatasunaren onarpenera kaltegarria suertatuko zela iragartzen zuten:

pues de ponerse en ejecución ha de experimentar indispensablemente un conozido atraso y abandono en la cortedad de su agricultura y labranza a causa de que qualquiera comerciante o mercader, de medianas combeniencias que sea,

---

4. Gonzalo Anesek (1970: 336-337) dioenez tasaren ezeztatzea gutxi batzuen mesederako izan zen: «los perceptores de diezmos, de rentas y de derechos cobrados en especie, y también [...] aquellos que habían hecho préstamos consistentes en granos».

5. Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia (aurrerantzean ALHA), Arabako Biltzar Nagusien Aktak (aurrerantzean ABNA), 39. liburua, f. 18v, 1765/11/23.

puede apoderarse de todo el trigo y granos que se coxen en el limitado distrito del territorio de la suplicante, esperando a lograr las ocasiones y lanzes en que los pobres labradores y cosecheros, para ocurrir a sus urxencias y necesidades, se vean precisados a vender sus frutos aunque los hagan falta para hazer sus respectibas siembras. [...] De aquí ha de provenir necesariamente el atraso y decadencia de la labranza y agricultura que se abandonará por todos aquellos labradores que no tubiesen medios o arbitrios para comprar los mismos frutos que vendieron<sup>6</sup>.

Ez dirudi Gaztelako Kontseiluak Arabako ahaldun nagusiaren eskakizunari kasurik egin zionik. Egia da, halere, 1766ko apirileko matxinadak ez zuela Araban ia oihartzunik izan (salbuespena Aramaio izan zen). Baina ukaezina da arabarren artean ezinegon nabaria piztu zuela merkataritza-askatasunaren legeztatzeak<sup>7</sup>. Arabako Lautadako nekazaritza batez ere garia ekoiztera bideratuta egonik ere, probintziako biztanle gehienak ez zeuden espekulazio eta urrialdietatik libre, eta horrek agintariei, batik bat udal-agintarieri, buruhauste galanta sortzen zien.

Arestian aipatu bezala, gari-hornikuntzari lotutako estutasunak ez dagozkio soilik XVIII. mendeari. Gauza da 1765ean, merkataritza-askatasunaren onarpenarekin, nolabait esateko, Monarkia Hispanikoaren lurretan garai berri bati eman zitzaiola hasiera. Paraleloki, gainera, XVIII. mende bukaerako hamarkadetan ekonomia-hazkundera gelditu egin zen, konbentzios Antzinako Erregimenaren (edo Feudalismo garatu edo berantiarraren) krisialdia deritzogunari hasiera emanez. Euskal Herrian, Iberiar Penintsulako eta Frantziako beste eskualde gehienetan bezala, 1720an hasitako hazkunde-zikloa ahitu egin zen. Arabako Lautadarako krisialdi ekonomikoaren hasiera, eta harekin batera demografi geldialdia, 1780ko hamarkadan kokatu ohi da (Bilbao eta Fernández de Pinedo, 1975; Bilbao, 1994). Garai benetan latza izan zen XVIII. mendearen bukaera eta XIX.aren hasiera, krisi ekonomikoa eta soziala ezezik, gerrak ere piztu zirelako.

Ale-tasarik ezean eta merkataritza-askatasunarekin, monarkiako udalerrri askotan tasa bezain zaharra zen erakunde ekonomiko baten babesa izan zuten. Hain zuzen ere, XV. mendearen bukaeratik aurrera nekazari txiroenek zer erein eta zer jan izan zezaten, eta, era berean, kontsumitzaileek ogiagatik prezio handiegiak ordaindu ez zitzaizkien, Gaztelako eta Aragoiko hainbat tokitan udal-bihitegiak sortu zituzten.

## **2. Udal-bihitegien sorrera eta bilakaera Monarkia Hispanikoan**

Asko Erdi Aroan sortuak izan baziren ere, udal-bihitegiak batik bat XVI. mendean ugaritu ziren. Hasieran badirudi norbanako aberatsak eta Eliza izan zirela erakundeon bultzatzaile nagusiak, baina laster udalak ere azaldu ziren fundatzaileen artean. Izan ere, 1558an Felipe II.ak eman zien bultzadaz geroztik, udaletxeek sortutako bihitegiak nabarmen aniztu ziren.

---

6. *Ibidem*.

7. 1766ko maiatza hasieran ahaldun nagusiak eskutitz anonimo bat jaso zuen zera eskatuz: «que se providencie que los arrendadores y tenedores de trigo de esta [...] provincia que los tienen ocultos los pongan de manifiesto y vendan ynmediatamente a precio de veinte y seis reales fanega pena de la vida»; *Ibidem*, f. 40v, 1766/5/3.

Monarkia Hispanikoaren meneko lurraldeetan udal-bihitegiak modu askotara izendatu zituzten. Tokian toki bete zituzten funtzioak berdin-berdinak izan ez baziren ere, eta hertsiki guztiak sinonimo ez diren arren, hona hemen izenotako batzuk: *pósitos*, *arcas de misericordia*, *alhóndigas*, *cambras*, *alfolies* eta *cillas*, besteak beste. Zaila da bakoitzaren ezaugarriak zehaztea. Errege-aginduetan ere ez da haien artean bereizketarik egiten, besterik gabe guztiei zuzenduak daudela esaten baita. Gure eremura hurbilduz, Araban udal-bihitegiak *arcas de misericordia* bezala izendatu zituzten, kasu batean izan ezik, Aguraingoari «pósito y arca de misericordia» esaten baitzioten.

Monarkia Hispanikoan zehar bete zituzten funtzioei buruz mintzatzen hasteko funtsezkoa da haien artean bereizketa nagusi bat egitea, ezberdintasunak antzematen baitira landa-eremuetako herri txikietako *arcas de misericordia* eta hiri eta hiribildu handietako *pósitoen* artean. Lehenen helburu nagusia nekazari zorpetuak lukurreriaren atzaparretatik libratzea zen, jasotzeaz zuten uztaren kontura maileguak har ez zituzten. Halakorik gerta ez zedin, urri/azaro aldera nekazari behartuenei ereiteko garia maileguz uzten zitzairen hurrengo uztarekin, hots, uztailan edo abuztuan, interes txiki batekin itzultzeko aginduarekin. Herri txikietako bihitegien beste funtzioa uza jaso aurretik egoera latzean zeuden nekazariei laguntza eskaintzea zen, goserik pasa ez zezaten. Aldiz, hiri eta hiribildu handietako *pósitoek* (Madrilekoa edo Zaragozakoak, adibidez) batik bat okindegien hornikuntza bermatzea zuten helburu nagusi edo, askotan, bakarra (Castro, 1987; Mateos Royo, 2008). Horretarako, uza ondoren garia merke erosi eta, urtean zehar haren prezioak gora egin ahala, okindegiei merkatuko prezioa baino merkeago saltzen zieten, ogia prezio jakin batean saltzeko baldintzarekin. Hala, hirietako *pósitoak* prezioen igoera bortitzek kontsumitzaileengan sor zezaketen ezinegona ekiditeko tresna baliotsu bilakatu ziren (Tello, 1994).

XVII. mendeko krisi orokorrera arte, produkzioarako maileguak uztea soilik udal-bihitegien bigarren funtzioa izan zen. Aldiz, XVIII. mendean berrantolatua izan ziren eta ereiteko sasoirako maileguak uzteari lehentasuna eman zitzaion. Hala ere, mendearen azken hereneko urrialdi eta prezio-igoerek behartuta, haietako askok pixkanaka kontsumitzaileei laguntza eskaintzera itzuli behar izan zuten, nolabait agintari ilustratuen ekonomia-politikaren porrota egiaztatuz.

1751ko martxoaren 16ko dekretua eta 1753ko maiatzaren 30eko *Instrucción general de los pósitos del reino* kaleratu ziren arte, udal-bihitegiek ez zuten izan araudi komunik ezta zuzendaritza-erakunde zentralizaturik ere (Castro, 1987: 108-113). 1753ko instrukzio orokorraren bidez monarkiak argi erakutsi zuen udal-bihitegien laguntza beharrezko ikusten zuela ekonomia sustatzeko eta bake soziala bermatzeko. 1773ra arte kaleratu ziren beste zenbait neurri erreformistek ere helburu horretan sakontzea izan zuten helburu.

1751ko dekretuak Estatuko idazkaria «superintendente general de todos los pósitos del reino» izendatu zuen. Superintendentziak gogoz ekin zion ordura arte Gaztelako Kontseiluak erdipurdika burututako zuzendaritza-lanari: harrezkero probintzietako arduradunek, korrejidoreek eta alkateek urtero udal-bihitegi bakoitzaren diru eta ale kontuak superintendenteari igorri beharko zizkioten. Arestian

aipatu bezala, neurriok, kontsumitzaileak babestea baino, produkzioaren sustapena bilatzen zuten. Hurrengo lau hamarkadetan, 1792ko uztailean udal-bihitegien ardua berriz Gaztelako Kontseiluari itzuli zitzaion arte, oro har udal-bihitegiek hazkundera nabarmena bizi zuten. 1751n 3.386 udal-bihitegi zeuden Gaztelan eta Aragoian; 1773rako 5.525 ziren eta 1793rako 5.251. Bihitegi kopuruaz gain, haien diru- zein ale-funtsak ere nabarmen hazi ziren: 1751an guztira 3.592.064 gari anega eta 17.030.027 erreale bazituzten, 1793rako 8.802.969 gari anega eta 54.350.874 erreale izatera iritsi ziren (Anes, 1968: 49). Neurri handi batean hazkunde horren atzean koroaren bultzada egon zen. Hala ere, udal-bihitegi asko oso modu behartuan sortuak izan ziren, tokian tokiko premiak eta ezaugarriak kontuan hartu gabe (Agüero, 1997). Gainera, ez da ahaztu behar errege-ogasunarentzat udal-bihitegiak zerga eta diru-iturri ere bazirela. 1782an, San Karlosen Bankua sortu zenean (banku nazional bat sortzeko lehen ahalegina), erreinuko udal-bihitegiak kreditu-erakunde berriaren akzioak erostera behartu zituen koroak (Ruiz, 1970: 176). Eta, beherago ikusiko dugun bezala, 1790eko hamarkadako gerren ondorioz udal-bihitegiek kalte handiak jasan zituzten, batez ere errege-aginduz armadari laguntza eskaini behar izan ziotelako.

Oro har, ilustratuek ez zituzten udal-bihitegiak begi onez ikusten. Ez zuten iritzi bakarra baina. Baziren erabat kontra azaldu zirenak. Gaspar Melchor de Jovellanos politikariarentzat, esaterako, udal-bihitegiek gari maileguengatik kobratzen zuten interesa hondakorra zen eta erakundeak berak alferrekoak (López, 1971: 100). Beste ilustratu batzuek, aldiz, funtsean erakundeok baliogarritzat joz, erreformen premia planteatu zuten. Horren adibide aparta San Adriango markes nafarra litzateke (Ordobas, 1982). Alde zeudenek udal-bihitegiak nekazaritza sustatzeko tresna egoki bezala ikusten zituzten, eta ez zuten uste kontsumitzaileen hornikuntza bermatu beharko luketenik, ilustratuen aburuz gari-hornikuntza erraztea merkataritza-askatasunari baitzegokion, ez udal-bihitegiei. Bazegoen ereiteko maileguak utziz merkatu libreari kalte egiten zitzaiola uste zuenik ere, eta egia da udal-bihitegiek aleen merkataritza baldintza zezaketela; baina, era berean, bihitegiok baziren ere merkatuaren ezintasunaren sintoma (Anes, 1970: 397). Azken ikerketek erakutsi dutenez, halere, gari-merkatuaren estatu-mailako integrazio-prozesuak XVIII. mendearen hasieran eman zituen lehen urratsak, XIX.aren erdialdean trenbideak eraikitzen hasi baino askoz lehenago, eta prozesu luze hori lineala izan ez bazen ere, badirudi udal-bihitegia bezalako erakunde publikoek, ekonomian esku hartu zuten neurrian, merkatuaren integrazio-prozesua atzeratu zutela<sup>8</sup>.

Koroak eskatu zizkien diru-laguntza hazkorren eraginez eta, batik bat, gerra eta aldaketa politikoen ondorioz, XVIII. mendeko azken hamarkadan eta XIX.aren lehen bi hamarkadetan udal-bihitegiek gainbehera nabarmena pairatu zuten. Kopuru aldetik baino funtsen aldetik jasan zuten murriztapen nabarmenena (Martínez Soto, 2007: 500). Hala ere, XIX. mendearen bigarren erdialdean nekazarien lagungarri bezala (soilik uztarako maileguak utziz, hots, kreditu-erakunde bezala) loraldi berri

---

8. XVIII. mendean zehar Penintsulako eskualdeen arteko prezio-aldakortasuna txikituz joan zen, nolabaiteko merkatu-integrazioari hasiera emanaz. Hala ere, egia ere bada erabateko merkatu-integrazioa ez zela XIX. mendearen bigarren erdialdera arte lortuko (Reher, 2001; Llopis eta Sotoca, 2005; Gallego, 2005).

bat bizi eta udalerrri askotan erakundeok XX. mende erdialdera arte jarraitu zuten martxan. Esan daiteke XIX. mendean sortutako aurrezki-kutxen aurretikoak izan zirela (Carasa, 1983).

### 3. Aguraingo udal-bihitegiaren ibilbide historikoa

Aguraingoa izan zen Araba osoko udal-bihitegi handiena. Gasteiz hiriak ez zuen inoiz halako erakunderik izan, XVI. mendean *pósito* bat sortzeko ahaleginak egin zituen arren (Blázquez, 1982). Aguraingoarekin alderatuz, Arabako *arca de misericordia* guztiak oso txikiak ziren (zehazki zenbat izan ziren ez dakigun arren). Ez zen hori desberdintasun bakarra. Kasu gehienetan fundatzailea Eliza izan zen eta hargatik Calahorra eta La Calzadako apezpikuaren mendean egotea egokitu zitzaizen (Angulo, 2000: 34-35). Aguraingoa, ordea, herriak berak sortua zen. Fundazio-datarik aurkitu ez dugun arren, aipamen goiztiarrena 1506koa da, alegia hiribildua Pero López de Ayalaren mendean zegoen garaikoa<sup>9</sup>. Hala ere, denbora luzez Calahorrako apezpikua udal-bihitegiaren kontrola lortu nahian aritu zen, azkenik Aguraingo udalarekin auzitan aritu zen arte. 1591ko auziaren erabakiak gauzak behin betirako argitu zituen: Aguraingo bihitegia bertako kontzejuaren esku geratu behar zen, apezpikuaren interferentziarik gabe<sup>10</sup>.

1596ko errege-agindu batean esaten denez, Aguraingo udal-bihitegiaren gari-funtsa 2.000 anegak osatzen zuten, «que en tiempos de neçesidad se repartía entre panaderos para que la vendiesen en pan coçido en la dicha villa a preçios moderados para el proveimento de los vezinos y biandantes y pobres»; eta, behar izanez gero, «en años caros y faltosos», udal-bihitegiak bana zezakeen «alguna cantidad de trigo para sembrar entre vezinos y pobres y lo volvían en grano del agosto»; eta horrez gain, udalak berak ere bihitegiaren funtsa erabil zezakeen, «en ocasiones de sus negoçios, para la defensa de sus libertades y aumento de su patrimonio», baina gero bihitegiari zor ziona aletan itzultzeko baldintzarekin<sup>11</sup>.

Hala ere, XVII. mendeko kontu-liburua aztertuta ez dirudi nekazariei mailegu askorik ematen zitzaienik, ezta salmentarik egiten okindegiei. Hala ere, kontabilitatea zer helbururekin egiten zen jakiteak esplika lezake, neurri batean bederen, bihitegiaren itxurazko jarduera falta hori. Kontuan hartu behar da kontuak urtero egiten zirela erakundearen hiru administratzaileak urtero aukeratzen zirelako. Beraz, administratzaile berriek kargua hartzen zutenean kontu-liburuan ezartzen zena soilik eskualdatzea gertatzen zeneko egoera zen. Hala, 1766ra arte, administratzaileek irailaren 29tik urrango urteko irailaren 29ra (hots, San Migueletik San Miguclera) arteko ardura zuten, gariaren ziklo osoa (hots, azarotik abuztura) euren agintaldiaren barruan geratzen zen eta ondorioz beraiei zegokien ereiteko gari-maileguak uztea eta uzta-garaiari maileguon ordainketa jasotzea. Horregatik, printzipioz, kargua hartzen zuten administratzaileek ez zuketean aurreko urtean utzitako maileguen berririk jasoko, ez bada zorren batek kitatu gabe jarraitzen zuela.

---

9. Aguraingo Udal Artxiboa (aurrerantzean AUA), 31-1.13.

10. *Ibidem*.

11. AUA, 579-1, f. 2r-v.



XVII. mendeko kontu-liburuak erakundearen arazoan berri ematen digu. 1624an, adibidez, 1617tik kobratzeke zeuden gari-zorrak kobratu zituzten, ordura arte uzta txarrak eta kudeaketa-arazoak egon zirelako<sup>12</sup>. Gainera norbanakoei utzitako mailegu urriak ez ziren hurrengo uztaroan itzultzekoak, bi edo hiru urteko epean ordaintzekoak baizik. Eta agian esanguratsuagoa dena: ez da inoiz esaten maileguak ereiteko direnik. Izan ere, mailegu gehienak hiribilduari egiten zitzaizkion, bederen mendearen lehen erdialdean. 1653ko iraila bukaeran, adibidez, bihitegiaren kapitala 2.026 anegak osatzen zuten: horietatik 752 biltegian bertan zeuden, 64 anega 19 norbanakok zituzten zor, eta gainerako 1.200 anegak hiribilduak bihitegiari zizkion zor<sup>13</sup>. Badirudi hiribilduaren zama arindu egin zela XVII. mende bukaera aldera. 1680an erakundearen kapitala 2.048 anegak osatzen zuten: horietatik 46 zenbait aguraindarrek zuten zor, hiribilduaren zorra soilik 62 anegakoa zen, eta gainerako anegak, 1.940 hain zuzen, fisikoki bihitegian bertan zeuden.

XVIII. mende hasieran, itxuraz behintzat, bihitegiaren administratzaileen lanak nahikoa eskasa izaten jarraitu zuen: 1714an, adibidez, ezin izan zituzten aurreko urtean utzitako maileguak kobratu «porque los dichos sus antecesores no les dieron la quenta ni entregaron papeles algunos de ellos ni las dichas escrituras, trigos ni llaves de el pósito»<sup>14</sup>. Gainera, 1728ra arte ez da dirurik aipatu ere egiten, erakundeak lantzean behin garia saltzen zuen arren; eta, urte gehienetan, nekazariek hartzen zituzten gari-maileguk ez zuten gari-erreserba osoaren laurdena ere suposatzen. Kontuetan ez da esaten ere maileguengatik nekazariek interesik ordaintzen zutenetz.

1728an bihurgune nabarmen bat aurkitzen dugu: bat-batean, ereiteko inoiz baino mailegu gehiago adostu ziren, guztira 1.178 gari anega osatzen zituztenak, nonbait urte horretako uzta oso eskasa izan zelako. Hurrengo hiru hamarkadetan, 1728tik 1760ra, kontu-liburuan ez zuten beste ezer idatzi, 1747an kontuak berriro liburuan apuntatzeko egin zuten saiakera antzua ez bada. 1760 eta 1761ean bihitegiaren printzipala 2.057 anegak osatzen zuten, baina esaten denez aurreko urteetan utzitako zenbait maileguk kobratu gabe zirauten. Horri beste hutsune batek jarraitzen dio, oraingoan lau urtekoa. Eta, azkenik, 1766an kontabilitatea liburura itzultzen denean (itzuli diogu zeren aurreko urteetan bihitegiak ez zituen eten bere funtzioak eta erakundearen arduradunek nolabaiteko kontabilitatea eraman behar izan zuten), orain bai gari eta diru sarrera eta irteerak inoiz ez bezalako zehaztasunaz ezarriko dituzte, kontabilitate zehatz horren azken urtea 1807 izango delarik, beherago ikusiko dugunez. 1766tik aurrera erakundearen administratzaileak ekaina bukaeran aukeratzeko hasi ziren, eta beraz harrezkero agintaldi bakoitzeko administratzaileei aurreko urteko zorrak kobratzea eta hurrengo urteko uztarako maileguak uztea egokitu zitzairen. 1773an Madriletik iritsitako agindua betez, karguen izendapenak eta bihitegiaren kontuak urte zibilaren hasieran egiten hasi ziren, hots, urtarrilean.

1766ra arteko kontabilitatearen laburpen horrek hiru gauza azpimarratzeko balio digu: (i) nabaria da bihitegiaren arduradunek ez zutela erakundearen gaineko kontrol zorrotzik eraman; (ii) itxuraz bihitegiaren gari-erreserba nahiko modu mugatuan

12. Ibidem, f. 74v.

13. Ibidem, f. 198r.

14. AUA, 430-3, f. 22v.



erabiltzen zen ereiteko maileguak uzteko zein okindegiei garia saltzeko orduan; eta (iii) Aguraingo udal-bihitegiak ez zion bere jardueren inguruko informaziorik inori bidaltzen, ez probintziako aldundiari ez koroari, eta ondorioz ez zuen zergarik ordaintzen. Baina, aipatu bezala, 1766an gauzak erabat aldatu ziren: bat-batean, ziur aski urte horretako urrialdiak bultzatuta, 1753ko *Instrucción general* delakoaren (eta haren ondoren etorri ziren beste hamaika dekreturen) agindu gehienei jarraituz, kontabilitatea askoz modu zehatzagoan eramaten hasi eta bihitegiaren erreserbak askoz ere modu eraginkorragoan erabiltzen hasi ziren<sup>15</sup>. Gainera, 1768 ondoren urtero kontuen kopia bat eta bihitegiaren gari-funtsen gaineko zerga (marabedi bat ale anega bakoitzeko) Santo Domingo de la Calzadako korrejidoreari bidaltzen hasi ziren, hura baitzen Madrilgo superintendentearen ordezkaria penintsula iparraldean<sup>16</sup>.

1704-1807 epealdiko kontu-liburuan ikus daitekeenez, XVIII. mendean zehar bihitegiaren printzipala 2.057 gari anegak osatu zuten. Horrez gain, 1768-1807 epealdiko diru-kontuek erakusten dutenaren arabera, bihitegiko kutxan batez bestez urtero 32.381 erreale kuarto («reales de vellón») egon ziren beharrezkoa izanez gero garia erosi ahal izateko. Aguraingoa Monarkia Hispanikoaren penintsulako lurretako udal-bihitegi ertaina baino handiagoa zen, bai gariz eta bai diruz: 1751n penintsulako udal-bihitegiek batez bestez 1.061 gari anega eta 5.029 erreale kuarto zituzten; 1793an batezbestekoek gora egin zuten eta 1.676 gari anega eta 10.350 erreale kuarto izatera iritsi.

Arestian aipatu bezala, gerra-garaian udal-bihitegiak armada hornitzeko biltegi estrategiko bezala erabil zitezkeen, XVIII. mende bukaeran ikusi zen moduan. Izan ere, 1798ko apirilaren 22ko errege-aginduak monarkiako udal-bihitegiak «contingente extraordinario» bat ordaintzera behartu zituen: 17 marabedi bihitegi bakoitzak zeukan gari anegako eta beste 17 marabedi diru-funtsaren 20 errealeko (edo % 2,5) (Anes, 1968: 50-51). 1798ko kontuek erakusten dutenez, Aguraingo udal-bihitegiak agindua bete eta Santo Domingo de la Calzadara 1.115 erreale eta 28 marabedi bidali zituen<sup>17</sup>. Koroak guztira 14 milioi erreale jaso zituen, eta diru hori guztia itzuliko zuela hitzeman arren, bihitegiek ez zuten ordaindutakoa inoiz berreskuratu. Are gehiago, hurrengo urtean, 1799ko martxoan hain zuten, koroak diru-laguntza berri bat eskatu zien bihitegiei: aurreko urteko kontuak itxi ondorengo gari- eta diru-soberakinen % 20. Oraingoan koroak 48 milioi erreale lortu zituen, baina, aurrekoan ez bezala, Aguraingo udal-bihitegiak ez zuen agindua bete. Une horretantxe udal-bihitegiak koroarekin harremana eten eta kontuak bidaltzeari utzi zion. Ahaldun nagusiaren esanetan, Arabako udalerrriak «en atención a sus fueros y franquezas, son y an sido siempre exemptos de toda contribución»<sup>18</sup>. Zergen ordainketa eteteak Aguraingo udalaren eta monarkiaren arteko liskar-auzi luze bati eman zion hasiera, 1830ean konpondu gabe jarraitzen zuena. Arabako aldundiak eskainitako laguntza garrantzi handikoa izan zen liskar-auzi horretan. 1806ko maiatzean, adibidez, ahaldun nagusiak Madrilgo gobernuari gezur biribila idatzi zion: «que en ninguno de

15. 1753ko instrukzio orokorren ezartzeak monarkiako *pósitos*en kudeaketa nabarmen hobetu zuen, ohiko ustelkeria eta funts-desbideratzeak hein batean ekidinez (Caro, Hernández eta Donoso, 2014).

16. AUA, 430-3, f. 117r-v.

17. *Ibidem*, f. 303r.

18. Montehermosoko markesak Aguraingo alkateari, Gasteiz, 1799/11/11, ALHA, DH-531-1.

los pueblos de la provincia ha habido pósito formal con fondos destinados para los fines a que regularmente lo están los de los pósitos del reino»<sup>19</sup>.

Iberiar Penintsulako Gerra garaian (1808-1814) Aguraingo udal-bihitegiaren gari-funtsa erabat xahutua izan zen. Baina gatazka bukatu bezain pronto, aguraindarrek erakundea berriz ere martxan jartzea erabaki eta su edo etxebizitza bakoitzari, bihitegiak gari kopuru nahikoa eskuratu bitartean, urteko anega erdiko zerga eskatu zitzaion. 1817ko ekainean, auzotarrek zerga ordaintzea onar zezaten, Gregorio de Luzuriaga udal-prokuradoreak oso eskari kartsua idatzi zuen. Erakundearen berreirakitzearen helburuen artean jada ez da okindegien hornitzea aipatuko; helburu bakarra produkzioa sustatzea izango da:

Si en tiempos de sus maiores felicidades hacíamos alarde de ser sus hijos, respirábamos bajo la inagotable beneficencia de sus libertades y a voca llena nos decíamos hijos de Salvatierra, ahora que necesita de nuestros recursos, que implora nuestra protección y nos llama alrededor de sí, ¿nos haremos sordos a sus voces y le negaremos el dulce y alagüeño dictado de madre? [...] Considera el procurador que los recursos de una población agricultora son sobremanera superiores a los que puede tener un vecino de Salvatierra, y este miramiento es el que le limita a fixar sus ideas al restablecimiento de un solo ramo, y éste es el del pósito o arca de misericordia, la principal base en que cimenta la clase más recomendable, cual es la de los labradores<sup>20</sup>.

Frantsesen aurkako gerrak bukatu ondoren, 1816 eta 1817ko Arabako Biltzar Nagusietan probintziako *arca de misericordia* desberdinen egoeraz eztabaidatu zen. Han elkartutakoek udal-bihitegiak berrantolatu eta indartu behar zirela erabaki zuten. Kezka eta eztabaida horien emaitza izan zen 1819ko *Plan en alivio de los labradores para el caso en que sus sembrados se destruyan por pedriscos o calamidades semejantes* zeritzana (Angulo, 2000: 48). Horrekin, Araban udal-bihitegien elkarlaguntzarako sare bat sortu zuten. Hurrengo urteetan Santo Domingo de la Calzadako korrejidoreak Aguraingo alkateari zergak eskatzen jarraitu zuen, betiere ezezkoa jasoz<sup>21</sup>.

1849ko ekainean Araban batzorde berezi bat sortu zuten udal-bihitegien gaia berriro ere aztertzeko eta ebaluatzeko. Udal-bihitegien garrantzia berretsi ez ezik, bihitegi gehiago sortu eta araudi bateratu bat ere kaleratu zuen batzordeak (Angulo, 2000: 50-51).

Aguraingo udal-bihitegiak XX. mende erdialdera arte jarraitu zuen funtzionatzen, baina ez zuen inoiz berriro izango XVIII. mende bukaeran eta XIX.aren hasieran izan zuen garrantzia. Utzi zituen azken gari-maileguak 1949koak dira: guztira 30 anega zazpi aguraindarri banatuak<sup>22</sup>.

19. Josef Joaquín Salazarrek Pedro de Naldari, Gasteiz, 1806/5/20, Ibidem. Anesek (1968: 46) ere Euskal Herrian eta penintsulako iparraldeko beste zenbait tokitan *pósito*rik egon ez zela dio. Antzeko zerbait dio, XIX. menderako, Martínez Sotok (2007: 502). Agurain eta Iruñako adibideek hori erabat ezeztatzen dute.

20. AUA, 307-16, f. 13r-v.

21. Diego de Arriolak (Arabako ahaldun nagusia) Aguraingo alkateari, Gasteiz, 1831/5/31, ALHA, DH-895-57.

22. AUA, 580-3, f. z/g.

#### 4. Aguraingo udal-bihitegiaren funtzioak 1760-1840 epealdian

Udal-bihitegiaren helburua ekoizleak eta kontsumitzaileak babestea zen. Horretarako hiru funtzio betetzen zituen nagusiki: (i) nekazariei (edo, ikusiko dugunez, nekazaritzan aritzen zen edozeini) ereiteko gari-maileguak utzi; (ii) urrialdietan okindegiak gariz hornitu; eta, azken horrekin loturik, (iii) urrialdietan ogiaren prezioa ezarri. Bigarrena eta hirugarrena ertsiki lotuta daudenez, elkarrekin aztertuko ditugu. Hala ere, hiru ekimenok ez ezik, bada beste funtzio bat berez udal-bihitegiari ez zegokiona baina salbuespen gisa, egoerak behartuta, behin baino gehiagotan bete behar izan zuena: hiribilduari dirua edo garia uztea.

Tamalez, bihitegiaren bi eginkizun nagusiek 1760-1840 epealdian izan zuten bilakaera aztertzeko oztopo gaindiezin bat dago: kontuen jarraitutasun eza. Ez dakigu 1762-1765 epealdiko hutsunea zerk eragin zuen. Konturik gabeko tarte handiena 1808 eta 1822 bitartekoa da. Hirurteko liberalaren amaieran (1820-1823) kontu-liburu berri bat erosi behar izan zuten, zeren, ziotenez, 1822 artekoa «se ha traspapelado o quemado entre otros papeles con motivo del saqueo y quema de varios de ellos por abril de este año en la casa del Excelentísimo Ayuntamiento Consistorial»<sup>23</sup>. Hala ere, 1817 eta 1818an utzitako gari-maileguen eskriturak gorde dira. Bestalde, gariaren joan-etorriak urtero apuntatzen zituzten bitartean, diruarenak soilik 1807ra arte aipatzen dira. Ikusiko dugunez, badirudi harrezkero bihitegiak ez zuela, 1815 eta 1816 urteetako salbuespenak kenduta, berriz garirik erosi edo saldu.

##### 4.1. Ereiteko gari-maileguak

Gari-maileguak nagusiki ereiteko uzten ziren. Beste arrazoi bat ere egon zitekeen: aleak bihitegian denbora luzez izan ondoren galtzeare egotea. Hala ere, gure epealdian gariaren egoera kaskarrak eragindako banaketa bakar bat egon zen: 1769an 194 anega banatu ziren auzotar guztien artean hurrengo urteko uztailean edo abuztuan itzultzeko aginduarekin<sup>24</sup>. Askoz eraginkorrago eta interesgarriagoak ziren, beraz, ereiteko utzitako maileguak.


Utzitako maileguen zenbatekoek garbiri erakusten dute hori izan zela bihitegiaren funtzio nagusia. Mailegatutako gari kopuruen bilakaera 1. grafikoan ikus daiteke. Bertan 1807ra arteko Aguraingo gari-produkzioaren bilakaera ere gaineratu dugu, maileguen garrantzia azpimarratzeko balio duena.

---

23. AUA, 579-3, f. 1r.

24. AUA, 430-3, f. 126r.

### 1. grafikoa. Aguraingo gari-produkzio osoa eta udal-bihitegiak utzitako gari-maileguak, 1760-1807 (anegatan).



*Iturriak:* Gari-produkzioa kalkulatzeko Aguraingo San Joan eta Santa María elizek jasotako hamarrenak («diezmos») erabili dira; Gasteizko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, Tazmías, 8867-2, 8867-3, 8867-4, 8869-1 eta 8869-2. Udal-bihitegiaren gari-maileguak 1704-1807 epealdiko kontu-liburutik jaso dira; Aguraingo Udal Artxiboa, 430-3.

Zer ondorio atera daiteke gari-ekoizpenaren bilakaeraren azterketatik? Kontuan izan behar da XVIII. mende guztian zehar Aguraingo populazioak ez zuela ia aldatarik jasan (Fernández de Pinedo, 1999: 55): 1683an 1.638 biztanle zituen, 1724an 1.642, eta 1798an, urte horretako auzotar-erroladak erakusten duenaren arabera, 1.614<sup>25</sup>. Halaber, badakigu su edo familia baten urte bateko gari-buruaskitasuna ziurtatzeko 20 anega garbi (edo 25,41 anega gordin) ekoizti behar zirela (Bilbao eta Fernández de Pinedo, 1984: 108); eta, hortaz, 1798ko auzotar-erroldako 373 suen gari-kontsumo optimoa asetzeko urtero 7.460 anega behar ziren. 1760-1807 epealdian urteko batez besteko ekoizpena (betiere zortzi urtetako datuak falta zaizkigula kontuan hartuz) 10.415 anegakoa izan zen, hots, 3.000 anega inguru buruaskitasun-mailaren gaineretik (soberakin hori erabili behar zuten, gutxienez, hamarrena zein errenta ordaintzeko eta udazkeneko ereintza ziurtatzeko). Bestela esanda, epealdiko batez besteko ekoizpena urtero errepikatu izan balitz, aguraindarrek jateko ogi nahikoa izango zuket. Baina, 1. grafikoa ikus daitekeenez, ekoizpenak gorabehera nabarmenak jasan zituen. Izan ere, epealdi osoko desbideratze tipikoa 2.212 anegakoa da. Gainera, uzta batzuk desbideratzeak iradokitzen duena baino askoz gehiago urrunduziren batez bestekotik: ekoizpen maximoa 1787an lortu zen, 15.237 anegarekin, eta minimoa hurrengo urtean, 6.586 anegarekin. Gorabeheren presentzia iraunkorrek esan nahi du urte batzuetan soberakin handia lortzen zela, eta beste batzuetan, aldiz, buruaskitasun-maila baino nabarmen gutxiago ekoizten zela.

25. ALHA, DH-7-2. Erroldetan zenbatzen ziren auzotarrak (*vecinos*) berez etxebizitza edo su bakoitzeko buruak ziren. 1798koan 373 zenbatu zituzten Agurainen. Biztanle-kopurua 1787ko Floridablancaren erroldatik atera den 4,34 koefizienteaz biderkatuz lortzen da (Fernández de Pinedo, 1999: 117).

Azter dezagun orain maileguren bilakaera. Gure epealdian maileguren utzitako kopuruek joera hazkorra izan zuten, batez ere 1781 ondoren. Lehenago badirudi 1766an mailegatutako 1.077 anegak salbuespen bat izan zirela, zeina, ziur aski, urte horretako hornikuntza-krisiarekin lotuta egongo zatekeen. Arestian aipatu bezala, uzta abuztuan jaso eta maileguak bizpairu hilabate beranduago uzten ziren, urrian edo azaroan. Logikak esaten digu bien arteko loturak estua izan behar zuela: printzipioz uzta txarreko urteetan ereiteko maileguren gehiago uzteko beharra legoke. Tamalez 1761-1772 epealdian ezin dugu bi aldagaien arteko harremanik ikusi, bataren edo bestearen datuak falta baitira; baina 1773tik aurrera, urte gehienetan bederen, erlazioa begibistakoa da: ekoizpena hazi egiten zenean mailegu gutxiago ematen ziren (oso nabarmen 1779an), eta, alderantziz, uztaren beherakadak maileguren hazkundera zekarren (oso nabarmen 1788an).

Maileguren gari-ekoizpena sustatzeko zeukaten garrantzia erakusten duen beste parametro bat gari-haziaren errendimendua litzateke, hots, ereindako ale bakoitzeko uzta-garaian eskuratzen zen ale kopurua. Arabako Lautadan ratioa 1/4 eta 1/10 bitartekoa zen (Bilbao eta Fernández de Pinedo, 1984: 109). Horrek esan nahi du ereindakoak hurrengo urteko uztaren % 10 eta % 25 bitarteko portzentaje bat suposatzen zuela. Eragiketa bera egin daiteke maileguren utzitakoa erabiliz. Hori egitea posible den epaldiko urteetan (48tik 31 urtetan), zera da aurkitzen duguna: gari-maileguren, batez bestez, hurrengo urteko uztaren % 8,44 suposatu zuten, hots, ereindako guztiaren zati garrantzitsu bat. 1788an, epaldiko maximoa, % 15,27 izatera iritsi zen; aldiz, portzentaje txikiena, % 2,92, 1774an aurkitzen dugu.

Zer baldintzatan uzten ziren maileguak? Baldintzok ezagutzeko hoberena obligazio-agiri bat ikustea da. Hona hemen 1773ko obligazio batean (XIX. mende erdialdera arte iraun zuen formula bera erabiliz) esaten dena:

En la villa de Salvatierra a quince de noviembre de mil setecientos setenta y tres, Juan Joseph Zanguitu, Lorenzo Casado y Juan de Orquín, vecinos de ella, los tres de mancomun et insolidum llebaron de el pósito de esta villa nueve fanegas de trigo para sembrar con licencia de la justicia, depositario e interbentores, con obligación de volberla para la cosecha de el año que viene de mil setezientos y setenta y quatro con quatro celemines y medio de creces, al respecto de medio celemin por fanega<sup>26</sup>.

Garia urriaren bukaeran edo azaroaren lehen erdian banatzen zen. Zorra, zegokion *creces* edo interesa gehituta, alegia «al respecto de medio celemin por fanega», hurrengo urteko uzta jaso ondoren kitatu beharra zegoen. Anega bakoitza hamabi zeleminek osatzen dutela kontuan harturik, interes-tasa printzipalaren % 4,16 zen<sup>27</sup>.

Mailegua ez zuen inoiz pertsona bakar batek hartzen, bik edo gehiagok baizik, beti *de mancomun et insolidum* latinezko formula erabiliz. Bitik bostera pertsonako taldeak ziren arruntenak, baina inguruko etxadien («hergoienak», bertako euskarari) kasuan (hots, Egileor, Alangua, Opakua eta Arrizala) mailegua auzotar guztiek batera eska zezaketen. Gure epealdian 35 eta 82 kontratu bitartean egin ziren urtero, eta horietan 130-230 auzotarren izenak azaltzen dira. Gainera garia nahiko modu

26. AUA, 579-2, f. 15r.

27. 1849ko probintzia-araudia onartu zenean interesa zelemín bat izatera pasatu zen, hots, % 8,32.

berdintsuan banatzen zen: bi eta lau anega bitartean auzotar bakoitzeko. Batzuetan, egia esan gutxitan, mailegu-hartzailearen izenarekin batera haren fidatzailearena ere azaltzen da agirian. Ordukoetan hartzaileak mailegua itzuli ezean zorrari aurre egiteko bestelako jabetzarik ez zeukala pentsatu behar da. Hala ere, fidatzailedun maileguak gutxi izateak ez du esan nahi beste mailegu-hartzaileek jabetza askorik zeukatenik, ezta fidatzaile bat behar zutenak oso txiroak zirenik. Kontuan hartu behar da XVII. mendean arabar nekazarien gehiengoak jornalari edo maizter bihurtu zela. Izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoarekin alderatuz, Araban lurraren jabetzaren galera eta maizter eta jornalarien ugaltzea azkarrago gertatu zen eta hedatuago zegoen (Fernández de Pinedo, 1977: 136-147). Hain zuzen ere, 1730eko hamarkadarako, Aguraingo biztanleen % 35,9 jornalariak ziren eta % 30,1 maizterrak; lur-jabeak % 8,7 besterik ez, eta gainerakoak txiro eta bestelakoak (Fernández de Pinedo, 1999: 276). Baina udal-bihitegia laguntzarako erakunde bat izanik ere, ez zen ongintzaz arduratzen, hiribilduko txiroenek beste mota bateko laguntza jasotzen baitzuten<sup>28</sup>. Horrela, Carasa Sotok (1983: 288) dioen bezala, udal-bihitegien laguntza bideratuta zegoen «a un sector social que es el más desguarnecido, que no accede a algunos *privilegios* de la pobreza y está lejos de la suficiencia» (letra etzana jatorrizkoan).

Nortzuk ziren zehazki gari-maileguen hartzaileak? Izen-abizenak badakizkigu, baina informazio gutxi dago haien egoera ekonomikoari buruz, oharren bat edo beste ez bada. Adibidez, 1766ko kontuetan, askok aurreko urtean jasotako garia itzultzerik izango ez dutela aipatu ondoren (gure epealdian gutxitan gertatu zena), zera esaten da: «todo a causa de la esterilidad de los años y que todos o los más de los vezinos deudores son inquilinos y arrendatarios»<sup>29</sup>. Hala ere, badakigu mailegu-hartzaileen artean nekazariak ez ezik artisauak eta beste lanbidedun pertsonak ere egoten zirela. Ez da harritzekoa. Izan ere, aldi berean zenbait jardueratan, eta horien artean batez ere nekazaritzan, aritzea nahikoa arrunta izaten zen industriaurreko landaguneetan.

Eragozpenak eragozpen, posible ote da Aguraingo mailegu-hartzaileen lanbideak zehaztea? Bai, 1798ko erroldari eta urte horretako mailegu-eskritura guztiak ere gorde izanari esker. Aipatu behar da, halere, garia hartu zuten 43 pertsona ez direla erroldako 373 izenen artean azaltzen, eta ondorioz ez daukagu haien lanbidearen berri. Mailegu-hartzaile batzuk erroldan ez agertzeko bi arrazoi nagusi daude. Lehena funtsean errolda su-zenbaketa bat dela, eta gari-mailegua, ordea, inoiz familiakideen artean jaso zezaketela, senar-emazteek edo aita-semeek, esaterako. Bigarrena erroldako izen batzuk berez ezizenak direla («Pachesa», «Manchega», «Galletas» edo «Francisca la viuda», besteak beste) eta beraz eskrituretako izenekin nekez aldera daitezke. Hala ere, 1. taulan azaltzen diren datuak oso esanguratsuak dira. 1798an Aguraingo auzotarren % 61,7k hartu zituen gari-maileguak. Mailegu-hartzaileen artean nekazariak ez ezik, jostunak, errotariak, zapatagileak edo jornalariak ere aurkitzen ditugu, besteak beste.

---

28. Agurainen bazen ongintzarako Rodrigo de Vicuña zeritzan aguraindar batek sortutako *obra pía*. Txiroenei (erroldetan *insolvente* edo *pobre de solemnidad* bezala azaltzen direnak) eskaintzen zien laguntza. AUAko «Beneficencia» sailean informazio ugari dago *obra pía* horren inguruan.

29. AUA, 430-3, f. 109r.

**1. taula. Aguraingo auzotar-errola eta gari-maileguen hartzaileak, 1798  
(erroldan azaltzen diren mailegu-hartzaileen ehunekoaren  
arabera ordenatuta)**

Auzotarren lanbideak edo egoerak	Auzotarrak erroldan	Erroldan azaltzen diren mailegu-hartzaileak	Mailegu-hartzaileen ehunekoa erroldan
Errotariak ( <i>molineros</i> )	4	4	100,0
Jostunak ( <i>sastres</i> )	9	9	100,0
Maisuak ( <i>maestro de niños</i> )	1	1	100,0
Organo-jotzaileak ( <i>organistas</i> )	2	2	100,0
Otzaragileak ( <i>cesteros</i> )	1	1	100,0
Sokagileak ( <i>sogueros</i> )	1	1	100,0
Errementariak ( <i>herrerros</i> )	11	10	90,9
Ehungileak ( <i>tejedores</i> )	18	16	88,9
Mandazainak ( <i>arrieros</i> )	7	6	85,7
Zapatagileak ( <i>zapateros</i> )	22	18	81,8
Nekazariak ( <i>labradores</i> )	142	104	73,8
Jornalariak ( <i>braceros</i> )	36	26	72,2
Igeltseroak ( <i>albañiles</i> )	3	2	66,7
Txokolategileak ( <i>chocolateros</i> )	3	2	66,7
Harginak ( <i>canteros</i> )	4	2	50,0
Lanbide gabeak ( <i>sin oficio</i> )	2	1	50,0
Alargunak I ( <i>viudas</i> )	28	12	42,9
Arotzak ( <i>carpinteros</i> )	7	3	42,9
Alargun txiroak ( <i>viudas y pobres</i> )	13	5	38,5
Botikariak ( <i>boticarios</i> )	3	1	33,3
Dendariak ( <i>tenderos</i> )	6	2	33,3
Zirujauak ( <i>cirujanos</i> )	3	1	33,3
Merkatariak ( <i>mercaderes</i> )	4	1	25,0
Abokatuak ( <i>abogados</i> )	2	0	0,0
Alargunak II ( <i>viudos</i> )	5	0	0,0
Benefiziodunak ( <i>beneficiados</i> )	16	0	0,0
Egoileak ( <i>moradores</i> )	5	0	0,0
Eskribauak ( <i>escribanos</i> )	2	0	0,0
Ezkongabeak ( <i>solteras</i> )	2	0	0,0
Itsuak ( <i>ciegos</i> )	1	0	0,0
Jauntxoak (besterik gabe "don")	3	0	0,0
Kalonje ohiak ( <i>ex-canonigos</i> )	1	0	0,0
Kapilauak ( <i>capellanes</i> )	3	0	0,0
Letoigileak ( <i>latoneros</i> )	1	0	0,0
Ostalariak ( <i>mesoneros</i> )	2	0	0,0
<b>Guztira</b>	<b>373</b>	<b>230</b>	<b>61,7</b>

*Iturriak:* ALHA, DH-7-2; AUA, 580-2.



Garia oinarrizko elikagaia izateak esplikatuko luke hiribilduko biztanle gehienak nekazaritzan aritu izana. Izan ere, 1732ko erroldak, 1798koa baino askoz zehatzagoa dena, gauza bera erakusten du, orduan artisau, jornalari eta bestelako lanbidedun askok lursail bat lantzen zutela adierazi baitzuten<sup>30</sup>. Tamalez ez dugu 1732ko gari-maileguen eskriturarik aurkitu bi daten arteko konparaketa egiteko.

1. grafikoan ikusi dugun bezala, maileguan utzitako gari kopuruak gorabehera nabarmenak jasan zituten 1807 baino lehen. Aldiz, 1823 ondoren gorabeherak leunagoak izan ziren, nahiz eta badakigun XIX. mendeko lehen erdialdeko gerrek Arabako Lautadako ekoizpenean oso eragin kaltegarria izan zutela (Bilbao eta Fernández de Pinedo, 1976: 443). 2. grafikoan ikus daitekeenez, 1823-1840 epealdian urtero utzitako gari-maileguak 658 eta 835 anega bitartekoak izan ziren, batez bestekoa 755 anega izanik. Merkatu integratuago baten isla? Agian bai, baina, nolahi ere, galdera horrek ikerketa sakonago bat eskatuko luke.

Arabako Lautada garia eta beste labore batzuk landatzeko eskualde aproposa da. Pentsa liteke merkataritza librearen ezarpena nekazaritzan aritzen zirenen mesederako izan zela, soberakinak lortuz gero, salmentekin irabaziak eskura zitzaketelako, eta, soberakinak eskuratu ez arren ere, ekoizleak izanik, merkatuko prezioetatik nolabait babestuta zeudelako. Baina hori teoria hutsa da, zeren praktikan errenta-desberdintasun nabarmenak baitzeuden auzotarren artean. Pentsa liteke ere, Agurainen nekazaritzan aritzen ez ziren gainerako auzotarrek, alegia kontsumitzaile hutsak zirenek, gutxienez merkatuan zer erosi izango zutela, nahiz batzuetan prezioek gora egin. Aitzitik, errealitateak erakusten digu okindegiak hiribilduko biztanleak hornitzeko arazoak izan zituztela, eta nekazariak zein beste lanbideetakoek urritasunak larrutik ezagutu zituztela. Udal-bihitegiak zeresan handia izan zuen ordukoetan. Ikus dezagun nola.

#### 4.2. Okindegien hornikuntza eta ogiaren prezioaren gaineko kontrola

2. grafikoan ikus daitekeen bezala, 1788ra arte bihitegiak okindegiei egindako gari-salmentak txikiak eta noizbehinkakoak izan ziren; harrezkero, ordea, ia urtero hornitu behar izan zituen okindegiak. Tamalez zehatzezina da ogiaren prezioaren gaineko kontrola okindegiei garia saldu zitzaizen bakoitzean gauzatu zen ala ez. Ziur aski bai, baina ez da hori frogatuko lukeen agiririk kontserbatu.


Jakina, salmenton helburua uzta aurreko hiletako urrialdiek eta prezio handiek sor zitzaketan kalteak ekiditea zen. Horregatik, bihitegiaren arduradunek kontu handia izan behar zuten azaroan maileguak utzi ondoren bihitegian gari-erreserba nahikoa mantentzeko. Gerta zitekeen biltegiko erreserba txikiegia izatea; orduan, noski, udal-bihitegiko arduradunek garia erosi behar izaten zuten. Adibidez, 1792ko kontuetan zera esaten da erosi zituzten 172 gari anegari buruz: «compradas en los meses de enero y febrero de dicho año noventa y dos, según lo acordado en aiuntamiento [...] para el repuesto de dicho pósito y atender a las urgencias que podían acontecer al vecindario»<sup>31</sup>. Eta udalaren osoko bilkuran 1792ko urtarrilean erabaki zenari so egiten badiogu zera aurkitzen dugu: alkateari eta bigarren

30. ALHA, DH-1238-1-B, ff. 169r-191v.

31. AUA, 430-3, ff. 267v-268r.

errejidoreari agindua eman zitzaien «para que con el maior sigilo y cuidado hagan acopio de doscientas fanegas de trigo para el pósito al precio más moderado que pudieren para dar al panadeo»<sup>32</sup>. Jokaera bitxia: urrialdiak prezioak emendatzen zituen, eta ondorioz udal-bihitegiak okindegiei garia saltzen zien, baina garia saldu ahal izateko lehenik erosi beharra zeukan, prezioak are gorago igo zitezten arriskua piztuz. Zorionez erosketok gutxitan egin zituzten, soilik egoera larrietan<sup>33</sup>. Premia berezirik ez zegoenean, 1775ean bezala, arduradunek zera zioten une hartan udal-bihitegiak zeuzkan 36.400 erreale kuartoei buruz: «no haverlos podido emplear atento a mantenerse el precio de el trigo bastante subido»<sup>34</sup>.

## 2. grafikoa. Aguraingo udal-bihitegiak utzitako gari-maileguak eta okindegiei saldutako garia, 1760-1840 (anegatan).



Iturriak: Aguraingo Udal Artxiboa, 430-3 eta 579-3.

Gure epealdiko agirietan ogiaren prezio-finkapenaren adibide bakar bat azaltzen da, 1790ean gertatua. Gari-ekoizle den hiribildu batentzat urrialdia pairatzea zinez mingarria zen, eta are mingarriagoa urte horietako gari-soberakin apurra inguruko probintzietara bideratzen zela ikustea, batik bat Gipuzkoa eta Nafarroara. 1790ean, hain zuzen, gariaren garestitzearen ondorioz, herritarrak kexu ziren. Urtarrilean okinak anega bakoitzeko 67 erreale ordaintzera iritsi ziren hiribilduko merkatuan. Baina laster zer erosi ere ez zen egon, zeren garia zeukateneke, entzunik «que el trigo iba levantándose en los mercados de la villa de Haro y ciudad de Vitoria»<sup>35</sup>, ez baitzuten saldu nahi. Orduan udal-agintariek esku hartu behar izan zuten, «pues

32. AUA, Udal Akten Liburua, 1792/1/28.

33. Izan ere, San Adriango markesaren kritika gogorrenak udal-bihitegiek egindako erosketei zuzenduta zeuden (Ordobas, 1982: 359).

34. AUA, 430-3, f. 160v.

35. AUA, 264-2, f. 17v.

caben los mencionados inconvenientes y otros muchos que pueden temerse de la inquietud del pueblo, que clama por el remedio, por los excesos que por esta vía se van cometiendo, y evitar en tiempo oportuno sean maiores en adelante»<sup>36</sup>. Ramón Antonio de Oquerruri alkateak herriko hamabi auzotar (okinak barne) galdekatu zituen argibide gehiago erdiesteko. Dirudenez arazoa Gasteiztik etorritako Eugenio de Aguirre merkatariak egindako gari-erosketek sortu zuten.

Izan zituen ondorioak ikusita, pentsa liteke Aguirrek erositako gari anega kopurua ikaragarria izan zela, baina ezta gutxiagorik ere. Berez 2.000 anega erosteko asmoz iritsi zen Agurainera. Ondotxo zekien horrelako kopururik ez zuela astearteroko merkatuan aurkituko. Zuzenean garia zutenengana jo beharra zeukan, eta, Aguraingo bi tartekariz baliatuz, halaxe egin zuen. Baina tartekariak aurkitzea ere ez zitzaion lan erraza suertatu. Lehenik laguntza Aguraingo alkate izandako Francisco Millán de Segurari eskatu zion; horrek erantzun zion «se marabillaba tomase semejante comisión tan delicada y que no la tomaría él aunque le presentaran qualquiera interés»<sup>37</sup>. San Millanek ondotxo zekien ahapeka aritu arren ere, zurrumurruen hedapena ez zuela ezerk ekidingo, eta laster auzotar guztiek izango zutela gertatzen ari zenaren berri. Azkenik Aguirrek 270 anega erostea besterik ez zuen lortu, gutxi izan arren, nahikoa hiribilduko merkatutik garia desagerrarazteko. Egoera horren aurrean, udal-agintariek erabaki zuten okindegietan zegoen ogi egosi guztia bahitzea, «para precaver de esta forma los daños que causa la penuria de pan primer alimento»<sup>38</sup>. Baina bildutako ogia herria hornitzeko nahikoa ez zela ikusirik, «desde luego se avrió el pósito por pronta providencia, [y] se extrajeron de éste porción de fanegas para el panadeo y surtido del pueblo»<sup>39</sup>.

Okindegiei egin zitzaizkien gari-salmentak 1790eko martxoaren 27an hasi ziren, «a razón de 48 reales fanega y la otana con obligación de bender a 28 quartos de vellón»<sup>40</sup>. Hau da, merkatuko azken prezioa baino 19 erreal merkeago. Hurrengo asteetan okinek udal-bihitegiko gari gehiago erosteko aukera izan zuten. Salmenta bakoitzean okin bakoitzak hiru anega erosi ahal izan zituen. Maiatzaren 29an (ordurako hamar aldiz saldu zitzaien garia okinei) udaletxeak erabaki zuen anegaren salneurria 33 errealera jaitea eta otanarena 20 kuartora<sup>41</sup>. Okindegiei egindako salmentak uztailaren 9ra arte luzatu ziren, hots, uzta berria jasotzeko gutxi falta zen arte. Argi dago, beraz, uzta berria iritsi artean udal-bihitegiko gariak herria elikatzeke eta gizarte-tentsioa baretzeko balio izan zuela.

Aguraingo udal-bihitegiak betetzen zuen hornikuntza-bermatzaile funtzioaren garrantzia neurri egokian baloratzeko, oso erabilgarria da 1790eko gari-urritasunak Gasteiz hirian izan zuen oihartzuna ikustea. Izan ere, Gasteizen eta Agurainen arteko diferentzia nabarmena zen: aguraindarrek urrialdiar aurre egiteko udal-bihitegia erabil zezaketen; aitzitik gasteiztarrek ez zeukaten udal-bihitegirik eta, hortaz, estutasun larriak nozitu zituzten ahora ogi puska bat eraman ahal izateko.

36. Ibidem, f. 2r.

37. Ibidem, f. 12v.

38. Ibidem, f. 2v.

39. Ibidem.

40. AUA, 264-7, f. 1r. «Otana» bi librako ogi biribila zen (920 gramo). «Quarto» bat lau marabedik osatzen zuten, eta erreal batean 8,5 kuarto zeuden.

41. Ibidem.

1790eko urtarrilerako Gasteizek egoera larria bizi zuen. Berez urrialdia 1788ko uzta txarrarekin hasi zen, eta 1789an egoerak okerrera besterik ez zuen egin. 1788an, arazoari aurre egiteko, udaletxeak garia metatua zuten pertsonak garia prezio egokietan saltzera behartu nahi izan zituen, baina neurriak ez zuen arrakastarik izan. Beste neurri bat, zertxobait eraginkorragoa, herriz herri gari-erosketak egitea izan zen. Beste bat, 1789ko udaberrian etsi-etsian hartua, legez kontrakoa izan zen: «emvargar y retener todo el trigo que se halló en su recinto vendido y sin vender de 50 a 55 reales fanega»<sup>42</sup>. Hala ere, muturreko neurri horrek ere ez zuen arazoa konpondu. Izan ere, 1790eko urtarrilean egoera aurreko urtekoa baino larriagoa zen. Udal-agintariek ziotenez:

[...] nada quedó sobrante del año último. Que la cosecha ha sido generalmente escasa en el reyno. Que los pobres carecen de aquellos déviles arvitrios que entonzes aprovecharon. Que ia se vende a 80 reales la fanega en el mercado público. Que de las partes de Castilla recurren sus pueblos y havitadores a comprar a los de esta provincia, siendo común el traer ha vender en ellos. Y finalmente que ni aun sobre precios caros hai quien venda y que ia el pueblo clama oprimido de la carestía y la escased<sup>43</sup>.

Horregatik Gasteizko Udalak Gaztelako Kontseiluari 10.000 gari anega erosteko baimena eskatu zion. Baina non eros zezaketen horrenbeste gari? Garai horretan arestian aipatu merkatarik gasteiztarra azaldu zen Agurainen, eta ikusi dugu hark egindako gari erosketak zer ondorio izan zuen.

Aguraingo udal-bihitegira itzuliz, gariarekin batera diru-kontuak ere aztertu behar dira. 1787ra arte gertatu zena nabarmena da: diru-erreserba gutxitan erabili zuten, kutxan momentu oro 20.000 eta 40.000 erreale artean mantenduz. Urte horietan diru-erreserba pixka bat uzkuritu zen eta gariarena, aldiz, emendatu. Baina 1788tik aurrera gauzak zeharo aldatu ziren. Gari-salmenten ugaritzeak diru-sarrerak emendatu zituen, baina aldi berean erosketek eta hiribilduaren zorrek (beherago aztertuko ditugunak) tarte gero eta txikiagoa utzi zioten bihitegiari erosketa gehiago egin ahal izateko. Beste modu batean esanda, dirua pixkanaka gari bihurtzen joan zen, gari-premia hazkorren adierazgarri, baita prezioen aldakortasunarena ere. Hala, 1802an okindegiei inoiz ez bezalako salmentak egin zitzaizkien: guztira 1.193 anega. Zerk bultzatuta? «Para socorro y alivio del vecindario de esta [...] villa que se hallaba constituida en mucha necesidad a resulta del pedrisco sufrido en sus campas a razón de cincuenta y seis reales fanega»<sup>44</sup>. Salmenta haietatik bihitegiak 66.838 erreale jaso zituen. Hurrengo urtean, 1803an alegia, berririo okindegiei garia saldu ondoren, gari-erreserba emendatzeko 53.125 erreale gastatu zituzten, kutxan diru gutxi utziz. Gari anegak 63 eta 68 erreale bitarteko prezioan erosi zituzten, eta 65 eta 69an saldu. Bestela esanda, saldutakoak eta erositakoak antzeko prezioak zituzten. Beraz, prezioak oso aldakorak ziren urteetan udal-bihitegiak seguru gisa jokatzeko zuen. Baina Bizkaiko eta Gipuzkoako itsas-portuetatik atzerriko inportatutako gari asko sartzen zenean, atzerriko garia Arabako Lautadara ere

42. Gasteizko udal-agintariek Gaztelako Kontseiluari, Gasteiz, 1790/1/29, ALHA, DH-1362-38.

43. Ibidem. Agiri berean ere urrialdiaren atzean uzta txarrak edo beste probintziatarako ateraldiak ez ezik, espekulazioaren garrantzia ere azpimarratzen da, hots, garaiko mentalitatearekin talka egiten zuen jarduera gorrotatua.

44. AUA, 430-3, f. 328v.

iristen zen, eta orduan gariaren prezioa jaitsi egiten zen, udal-bihitegia kaltetuz. Hala ere, badirudi arazo hori ez zutela XIX. mende hasiera arte nozitu: 1804an udal-bihitegiko arduradunek 599 anega erosi zizkieten «a diferentes sugetos» inoiz ez bezalako prezioetan, 74 erreal anegako, aurrirakusten zuten urrialdiari aurre egin ahal izateko<sup>45</sup>. Baina gero okindegei ez zieten prezio horretan saldu, «mediante haver vajado considerablemente el precio de los granos y maiormente el de las arinas ultramarinas, motivos que mediaron para el panadeo a más vajo precio [56 erreal] que el coste de compras»<sup>46</sup>. Ondorioz bihitegiak diru-galera nabarmena jasan zuen. 1807rako, urte horretako kontu-balantzaren arabera, erakundeak ez zeukan erreal bakar bat ere.

Gerra bukatu ondoren, Aguraingo udal-bihitegiak okindegiak berriro hornitu zituen, baina soilik 1815 eta 1816 urteetan, ez ondoren. Zergatik ez zuen harrezkero baliabide hori erabili? Agian aguraindarrei berriro hornikuntza-arazo larririk pairatzea tokatu ez zitzaielako. Horrek esan nahiko luke aurrerantzean bertoko produkzioa eta aleen merkataritza nahikoa izan zirela hornikuntza ziurtatzeko. Hala ere, litekeena da okupazio frantsesaren ondoren udal-agintariak, bihitegiak jasandako gari-galerak ikusita, ereiteko maileguei prioritate osoa eman izana. Halaber, 1819ko Arabako Aldundiak abiarazi zuen probintzia-egitasmoak ez zuen okindegien hornikuntzari buruz ezer esaten.

### 4.3. Hiribilduari maileguz utzitako dirua eta garia

Behin baino gehiagotan hiribilduak udal-bihitegiaren diruaz eta gariak baliatu behar izan zuen udalaren hainbat gasturi aurre egin ahal izateko. Ez zen hori berez bihitegiari zegokion betebeharra, ez Agurainen ez beste inon. Izan ere, monarkiako udal-bihitegi askoren hondamendia beren funtsak udalen gastuei aurre egiteko erabali izanak ekarri zuen. Agurainen ez zen halakorik gertatu.

1765-1788 epealdian gari-ateratze bakarra 1765ean gertatu zen; kontu-liburuan azaltzen denez, hiribilduak 11,25 anega zizkion zor bihitegiari<sup>47</sup>. Zorra gari kantitate bera itzuliz edo dirutan haren balioa ordainduz kitatu behar zuen hiribilduak.

1788ko uzta txarra dela medio, 1789an askoz zor garrantzitsuagoa aurkitzen dugu. Kontuetan ez da gari kopururik aipatzen, dirua baizik, eta nahikoa kopuru handia gainera: 13.373 erreal. Udaletxeak zorra kitatzeko sei urte behar izan zituen. Haren jatorria azaltzean zera esaten da: «los mismos que esta referida villa es en dever a dicha arca y de los que se valieron nuestros hantezesores para subenir en parte al paneo y socorro de los pobres»<sup>48</sup>.

Bihitegiak hiribilduari utzi zion hurrengo mailegua 1801ekoa da: 5.955 erreal haragi erosi ahal izateko. Dirua Antonio Romualdo Ruiz de Luzuriagak jaso zuen, bera baitzen «administrador del abasto de carnes». Dirua erabili behar zuen

---

45. Ibidem, f. 342v. 1804an oso urrialdi latza pairatu zen Gaztela osoan (Anes, 1970: 401 eta hur.).

46. AUA, 430-3, f. 343r.

47. Ibidem, f. 109v.

48. Ibidem, f. 259v.

para subvenir, con ellos y otras cantidades que tiene de la villa y arvitrio de la sisa, a la compra de ganados y demás ramos correspondientes a la citada administración de carnes, en calidad de devolverlos siempre que la citada arca de misericordia los necesite para socorrer sus urgencias<sup>49</sup>.

Azkenik Ruiz de Luzuriagak zorra 1804an kitatu zuen. Urte horretan, halere, ezohiko zorrok, ordura arte ez bezala, udal-bihitegiaren funtzionamendu egokia kolokan jartzen hasi ziren. 1804 eta 1805 urteetan udaletxeari utzitako 4.452 errealei buruz zertarako erabili ziren ez da zehazten, baina mailegu horrek argi erakusten du ezohikotasunak udal-bihitegiari egin ziezaiokeen kaltea. Izan ere, arestian aipatu bezala, urte horietan udal-bihitegiak gari kopuru handiak erosi behar izan zituen eta gelditzen zitzaion diru apurra udalari utzi behar izateak diru-erreserba guztiz ahituta utzi zuen.

Okupazio frantsesaren garaiko (1808-1813) informazio gutxi dago eta 1815era arte agirietan ez da udal-bihitegiari buruzko aipamen berririk azaltzen. 1816ko urrian, udaletxearen aginduz eta udal-bihitegia berrindartzeko asmoz, auzotarrak urtean anega erdi bat ordaintzera behartu zituzten. Aginduaren helburua ez zen soilik bihitegiaren gari printzipala pixkanaka berreskuratzea; izan ere, jasotakotik 100 anega hiribilduaren zorrak ordaintzeko izango ziren «y el resto se adjudicará para la arca de misericordia»<sup>50</sup>. Ordurako, udal-aktetan esaten denez, hiribilduak 907 anega zizkion zor udal-bihitegiari<sup>51</sup>. Hala ere, 1816 ondoren udal-bihitegiaren funtzio bakarra ereiteko gari-maileguak uztea izan zen.

## 5. Ondorioak

Antzinako Erregimenaren krisian, Monarkia Hispanikoan zehar herritarrek hornikuntza-arazo larriak pairatu zituzten. 1765ean ilustratuek bultzatutako aleen merkataritzaren liberalizazioak hornikuntza erraztea eta urrialdiak amaitzea zeukan helburu, baina ordura arte oso erregulatuta egon zen merkaturia bat-batean askatzeak kontrako ondorioa izan zuen. Hurrengo urteetan aleen merkaturia libre mantendu nahi izan zuen koroak, baina, espekulatzailen lana errazten zuen neurrian, merkataritza-askatasunak urrialdiak (uzta txarrek eta gerrek sortuak) are kaltegarriagoak izatea besterik ez zuen lortu. Aitzitik, erakunde ekonomiko zahar bat, tokian tokiko udal-bihitegia, gai izan zen urrialdiei erantzun askoz eraginkorragoa emateko, baita landaguneetako ekoizpena sustatzeko ere. Aguraingo udal-bihitegiaren kasuak hori bera erakusten du.

Aguraingo «pósito y arca de misericordia» Behe Erdi Aroan sortua izan zen, eta hasiera-hasieratik bere funtzioak XVIII. mendearen bigarren erdialdean aurkitzen ditugunak izan ziren: hiribilduko okindegiak gariz hornitzea, nekazarieri ereiteko gari maileguak uztea, eta, egoerak eskatuta, udalaren gastuei aurre egitea. Hala ere, gure epealdian ereiteko maileguak uztea izan zen funtzio inportanteena, hots, gari-ekoizpena sustatzea. Okindegiei merkaturioak baino prezio txikiagoetan garia saltzeak garrantzi handia izan zuen batez ere 1788 eta 1805 bitartean, urrialdiak

49. Ibidem, f. 323r-v.

50. AUA, 553-1, Aguraingo Udal Akten Liburua, 1818/10/5.

51. Ibidem, 1816/11/17.

bereziki latzak izan ziren urteetan. Baina, ikusi dugunez, okupazio frantsesaren ondoren, bihitegiak okindegiak hornitzeari utzi egin zion, harrezkero gari-ekoizpenaren sustapenari arreta osoa emanez.

Artikulu honetan udal-bihitegiak aztertzen dituzten historialariek ikertu ez dituzten bi arlo garrantzitsu ikertu ditugu: batetik, urtero mailegatutako garia urte bakoitzeko gari-ekoizpen osoarekin alderatu dugu; eta, bestetik, gari-maileguak zehazki nork hartzen zituen erakutsi dugu. Bi datu kuantitatibo horiek erakusten dutenez, Aguraingo udal-bihitegia oso erakunde eraginkorra izan zen nekazaritzan aritzen ziren biztanle guztiak lukurreriaren atzaparretatik libre mantentzeko.

Hala ere, udal-bihitegia urrialdiei aurre egiteko gai izan zela argudiatzeak ez du esan nahi bere funtzionamendua akatsik gabea izan zenik. Ikusi dugunez, kontraesan nabarmenak sortzen zituen garia erosten zuen bakoitzean, prezio handien aurka borrokatu nahian prezioak are gehiago emendatu baitzitzakeen. Baina oro har udal-bihitegia ezinbestekoa suertatu zen krisi ekonomikoa eta gerren eragin hondatzaileak leuntzeko.

## Bibliografia

- Agüero Díez, M. T. (1997): «Evolución del pósito alicantino durante el reinado de Carlos III (1759-1788): Los conflictos generados en torno al pan», *Revista de Historia Moderna*, **16**, 331-352.
- Andrés Ucendo, J. I. eta Lanza García R. (2012): «El abasto de pan en el Madrid del siglo XVII», *Studia Histórica-Historia Moderna*, **34**, 61-97.
- Anes Álvarez, G. (1968): «Los pósitos en la España del siglo XVIII», *Moneda y crédito*, **105**, 39-69.
- , (1970): *Las crisis agrarias en la España moderna*, Taurus, Madril.
- Angulo Morales, A. (2000): «El socorro a los necesitados: de las Arcas de Misericordia a la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Vitoria (siglos XVI-XIX)», in S. de Pablo (koor.), *Caja de Ahorros de Vitoria y Álava. Ciento cincuenta años en la historia de Álava, 1850-2000*, Fundación Caja de Ahorros de Vitoria y Álava, Gasteiz, 16-51.
- Astigarraga, J. (2003): *Los ilustrados vascos: Ideas, instituciones y reformas económicas en España*, Crítica, Madril.
- Bilbao Bilbao, L. M. (1994): «Arabako ekonomia foruen garaian, 1458-1876», in Zenbaiten artean, *Arabako Biltzar Nagusien Aktak V, 1556-1565*, Arabako Biltzar Nagusiak, Gasteiz, xvi-clxi.
- Bilbao Bilbao, L. M. eta Fernández de Pinedo E. (1984): «La producción agrícola en el País Vasco (1537-1850): Tendencias generales y contrastes comarcales», *Cuadernos de sección Historia-Geografía*, **2**, 83-196.
- , (1976): «La coyuntura agraria de la Llanada Alavesa y tensiones sociales en la primera mitad del s. XIX», in J. L. García Delgado (ed.), *La cuestión agraria en la España contemporánea*, Edicusa, Madril, 431-455.
- , (1975): «La evolución del producto agrícola bruto en la Llanada Alavesa, 1611-1813», in Zenbaiten artean, *Actas de las y Jornadas de Metodología aplicada de las Ciencias Históricas III*, Universidad de Santiago, Santiago de Compostela, 109-141.
- Blázquez Garbajosa, A. (1982): «Las ordenanzas del pósito del pan de la ciudad de Vitoria»,



- in P. Aróstegui Santiago (koor.), *Vitoria en la Edad Media: Actas del I Congreso de Estudios Históricos*, Gasteizko Udaletxea, Gasteiz, 407-414.
- Carasa Soto, P. (1983): «Los pósitos en España en el siglo XIX», *Investigaciones Históricas. Época Moderna y Contemporánea*, **4**, 249-304.
- Caro Puro, R.; Hernández Borreguero J. eta Donoso Anes A. (2014): «Estudio normativo sobre la administración y contabilidad de los pósitos y su aplicación al pósito de la villa de Osuna (1753-1763)», *De Computis: Revista Española de Historia de la Contabilidad*, **20**, 116-143.
- Castro, C. (1987): *El pan de Madrid: El abasto de las ciudades españolas del Antiguo Régimen*, Alianza, Madril.
- Fernández de Pinedo, E. (1999 [1. arg. 1974]): *Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak, 1100-1850*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (1977): «El campesino parcelario vasco en el feudalismo desarrollado (ss. XV-XVIII)», *Saioak*, **1**, 136-147.
- Gallego Martínez, D. (2005): «La formación de los precios del trigo en España (1820-1869): el mercado interior», *Historia Agraria*, **36**, 263-285.
- Iñurrategui Rodríguez, J. M. (1996): *Monstruo indómito: Rusticidad y fiereza de costumbres*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Kaplan, S. L. (1976): *Bread, Politics and Political Economy in the Reign of Louis XV*, Martinus Nijhoff, Haga.
- Llopis, E. eta Sotoca, S. (2005): «Antes, bastante antes: la primera fase de la integración del mercado español de trigo, 1725-1808», *Historia Agraria*, **36**, 225-262.
- López Yepes, J. (1971): *Historia de los montes de piedad en España: el Monte de Piedad de Madrid en el siglo XVIII*, Confederación Española de Cajas de Ahorro, Madril.
- Mateos Royo, J. A. (2008): «Élites locales, gestión pública y mercado preindustrial: La administración de los pósitos en Aragón durante la Edad Moderna», *Revista de Historia Moderna*, **26**, 121-154.
- Martínez Soto, A. P. (2007): «Los pósitos en el siglo XIX: Una red pública de microcrédito agrario (1800-1914)», *Historia Agraria*, **43**, 485-530.
- Ordobas Artigas, E. (1982): «El marqués de San Adrián: Un ilustrado navarro», *Príncipe de Viana*, **165**, 349-367.
- Persson, K. G. (1999): *Grain Markets in Europe, 1500-1900: Integration and Deregulation*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Reher, D. S. (2001): «Producción, precios e integración de los mercados regionales de grano en la España preindustrial», *Revista de Historia Económica*, **19**, 539-572.
- Ruiz Martín, F. (1970): «La banca en España hasta 1782», in F. Ruiz Martín *et al.*, *El Banco de España: Una historia económica*, Banco de España, Madril, 3-196.
- Tello Aragay, E. (1994): «El papel del crédito rural en la agricultura del Antiguo Régimen: desarrollo y crisis de las modalidades crediticias (1600-1850)», *Noticiero de Historia Agraria*, **4:7**, 9-37.

